

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Gatzaga Buradongo kontzejuan trafikoa arautzeko udal ordenantzari

Honen bidez interesdun orori jakinarazten zaio udalbatzak, 2018ko abenduaren 19ko osoko bilkuran, Gatzaga Buradongo kontzejuan trafikoa arautzen duen udal ordenantzari hasierako onespena eman diola gehiengo osoz.

Horiek horrela, erabaki hori iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hogeita hamar egunez jarriko da jendaurrean, epe horretan interesdunek, egoki iritziz gero, erreklamazioak eta alegazioak udal idazkaritzan aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, udal ordenantza onesteko erabakia behin betiko onartutzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Egintza honek administrazio bidea agortzen du eta, izapide hutsa denez, haren aurka ezin da administrazio errekurtsorik aurkeztu, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bastida, 2018ko abenduaren 20a

Alkatea

LAURA PÉREZ BORINAGA